
ATZERRITIK IRITSITAKO ETORKINEN ERAGINA EUSKAL EKONOMIAN ETA DEMOGRAFIAN

1. IKERKETAREN SARRERA ETA AZALPENA

Lan- eta ekonomia-motibazioak dira Euskadin azken urteotan egon diren migrazio-fluxu gehienen oinarri. Hori kontuan hartuta, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik, nazioarte-mailan eta estatuan bertan immigrazioak ekonomian, oro har, duen eragina kuantifikatzeko eta neurtzeko eta ongizate-estatuari eusteko egiten dion ekarpena neurtzeko ikerketak egiten ari dira. Logika horretan dago, esaterako, *Erkidegotik kanpoko immigrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan eragiten duen inpaktu ekonomikoa azterlana*, Eusko Jaurlaritzak 2008an eginikoa –batez ere 2006ko datuekin–. Halaber, sarritan aipatua izan zen Espainiako Gobernuko Presidentetzaren Bulego Ekonomikoak, Miguel Sebastiánen agindupean, 2006ko azaroan eginiko *Espainiako Immigrazioa eta Ekonomia: 1996-2006* izeneko txostena.

Eztabaida horren inguruan, kontuan hartu behar dugu baliabide ekonomiko eta sozialetan bai herritarrengan, oro har, bai erakunde publikoetan murrizketa handia ekarri duen krisi ekonomikoaren eta sozialaren inpaktua. Baliabideen urritasun horrek eta herritar gehien bizi-kalitateak txarrera egin izanak zuzenean du eragina gure gizartean atzerriko herritarrek babes sozialaren eta ongizatearen sistema publikoko zati diren baliabide sozialen gainean egin duten erabileraren inguruko pertzepzioetan.

Horren harira, Ikuspegik immigrazioaren aurreko jarrereri buruz eginiko barometroak egiatzatzen du euskal sozietatearen sektore handi batek uste duela etorkinek onura gehiegi ateratzen diotela babes-sistemari eta *ematen dutena baino gehiago jasotzen dutela*.

Ikerketa honen bidez, Eusko Jaurlaritzak aurretik egindako azterlanaren datuak eguneratu eta osatu nahi ditugu, eta modu berezian azpimarratu nahi dugu krisiaren inpaktua eta horrek etorkinen kolektiboari zuzendutako politika sozialen ekarpenean eta gastuan duen eragina. Halaber, datu fidagarri eta egiaztatuen bidez, eremu honetan dauden estereotipoei erantzun nahi diegu, errealitatean benetan oinarriak duten jakiteko.

Bestalde, immigrazioaren eragin demografikoa nabarmendu nahi dugu, zuzenean ez bada ere, modu erabakigarrian eragiten baitu epe ertainera eta luzera, ekarpen ekonomikoarekin eta ongizate-estatua eustearekin lotutako alderdietan.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu prentsa-ohar honetan aurkezten ditugun datuak arku publikoei –administrazio autonomikoa eta Gizarte Segurantzari kotizazioak– eginiko ekarpena mugatzen direla, baina ez garela ari aztertzen immigrazioaren inpaktu ekonomikoa ekonomia osoan eta haren inpaktua, besteak beste, enpleguan, garapen ekonomikoan edo ezkutuko ekonomian, oso zaila baita neurtzea eta balioestea. Beste modu batera esanda, etorkinen inpaktu ekonomikoaren icebergaz baino ez gara ari hitz egiten; horrela, kautelazko ikuspegia hartzen dugu, kolektiboak euskal ekonomiaren gainean dituen eraginei dagokienez.

2. HELBURU OROKORRAK ETA BEREZIAK

Azterlanaren helburu orokorra honako hau da:

atzerriko immigrazioak EAEn krisiaren aurretik eta ostean duen inpaktu ekonomikoa eta demografikoa neurtzea.

Helburu orokor hori honako helburu berezi hauen bidez zehazten da:

- Balantzea egitea, atzerriko nazionalitatea duten herritarrek egiten duten ongizate-sistemen erabileraren eta administrazio publikoari Euskadin eta Gizarte Segurantzari egiten dieten ekarpen ekonomikoen artean.
- Atzerriko nazionalitatea duten herritarrek ongizate-sistema nola erabiltzen duten aztertzea eta diru-kutxa publikoetarako kostua ebaluatzea.
- Atzerriko nazionalitatea duten herritarren inpaktu demografikoa eta horren eragin sozialak eta ekonomikoak aztertzea.



3. METODOLOGIA ETA DATUAK

Azterlana metodologia kuantitatiboan oinarritzen da eta zenbait datu-basetan oinarrituta eraiki diren adierazle batzuen bidez garatzen da. Atal honetan, horrelako ezaugarriak dituen azterlan bat egitea zein konplexua den ohartarazi behar da, batez ere, erabilitako informazio-iturri kopuru eta barietate handiagatik.

Amaierako emaitzak eskuratzeko, espainiarren eta EAEn atzerriko nazionalitatea duten herritarren diru-sarreraren eta gastuen estimazioak egin dira. *Diru-sarreratzat* jotzen da administrazio publikoari zergen eta gizarte-kotizazioen bidez egiten zaion ekarpen ekonomikoa. *Gizarte-inbertsioko gastutzat* jotzen da EAeko ongizate-sistemaren zerbitzuak erabiltzeak dakarren estimazio ekonomikoa.

Diru-sarreraren atalaren barruan, batez ere fiskalitatearekin eta gizarte-kotizazioekin lotutako zenbait atal bereizi ditugu. Zehazki, etorkinen diru-sarrerak aztertu dira, PFEZren, BEZaren, zerga berezien, etxebizitza aldetiko diru-sarreraren eta kotizazio sozialen bidez. Gastuen kasuan, gaur egungo politika sozial nagusiak bereiziz banatu dira, besteak beste: prestazio ekonomikoak eta gizarte-zerbitzuak, hezkuntzako, osasuneko eta etxebizitzako gastua.

Analisirako, informazio fidagarria, kalitatekoa eta osoa ematen duten aldagaiak baino ez dira baliatu; horregatik, diru-sarrera eta gastu batzuk ez dira azterlanean sartu. Hala ere, kontuan eta gogoan izan dira dimentsiorik garrantzitsuenak. Baliatutako datuak 2008koak eta 2012koak dira. Horrela, krisiaren aurretiko eta osteko egoera erka ditzakegu. Baliatutako iturriak direla eta, guztiak izan dira estatistikako eragiketa ofizialak, eta, horien artean, Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkesta –PDSI– nabarmendu behar da, izan duen garrantziagatik. Jarraian, hurrengo taula hauetan –gastua eta diru-sarrera–, ekonomiaren eremuan azterlanaren eremuetako bakoitzean erabilitako iturriak aipatzen dira.



1. taula. Inpaktu ekonomikoa neurtzeko adierazle eta iturri estatistikoak

Dimentsioa	Adierazlea	Iturria	Metodologia
Inbertsio soziala	Gizarte-prestazioak eta -zerbitzuak	Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkesta PDSI–.. Behar Sozialen Inkesta, foru-aldundiak. Eusko Jaurlaritza	Herritarren nazionalitatean oinarritutako inkestaren emaitzen analisia.
	Gastu soziala hezkuntzan	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Aurrekontuak Eusko Jaurlaritza	Gastuaren analisia ikasle bakoitzeko, nazionalitatearen, hezkuntza-mailen, matrikulazioen eta ikastetxeko titulartasunaren arabera.
	Gastu soziala osasunean	Osasun Saila: Aurrekontuak Eusko Jaurlaritza	Osasun-gastuaren analisia, nazionalitatearen eta adin-taldearen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eginiko adin-taldearen araberrako osasun-gastuaren adierazlean oinarrituta.
	Gastu soziala etxebizitzan	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Aurrekontuak Eusko Jaurlaritza	Etxebizitzako gastuaren analisia, Alokabiden eta VISESAn etxebizitza babestuaren araubidean dauden adjudikaziodunen nazionalitatean oinarrituta.
Diru-sarrerak	PFEZ	Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkesta –PDSI–. Euskadiko Zerga Koordinazioaren Organoa	Diru-bilketaren analisia, nazionalitatearen eta errenta-mailaren arabera, PFEZren lan-atxikipenen taula kontuan hartuta.
	BEZa	Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkesta –PDSI–. Eusko Jaurlaritza	Diru-bilketaren analisia, nazionalitatearen eta kontsumo-egituraren arabera.
	Zerga bereziak	Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkesta –PDSI–. Familia Aurrekontuen Inkesta eta Euskadiko Zerga Koordinazioaren Organoa	Diru-bilketaren analisia, nazionalitatearen eta kontsumo-egituraren arabera, zuzenketa-faktoreak barne, errenta-mailaren arabera.
	Etxebizitza	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Aurrekontuak Eusko Jaurlaritza	Etxebizitzako gastuaren analisia, Alokabiden eta VISESAn etxebizitza babestuaren araubidean dauden adjudikaziodunen nazionalitatean oinarrituta.
	Kotizazio sozialak	Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkesta –PDSI–. EUSTAT	Diru-bilketaren analisia, kotizazioen nazionalitatearen arabera



Inpaktu demografikoari buruzko azterlana egin denean herritar espainiarrek eta atzerriko nazionalitatekoek dauzkate adierazle demografiko nagusiak; atzerriko herritarrek adierazle horien gainean duten inpaktua nabarmentzen da, eta azken urteotako migrazio-fluxuak gertatu ezean egungo egoera zein izango litzatekeen azpimarratzen da. Hurrengo taulan, adierazle horien ezaugarriak laburtzen dira.

2. taula. Inpaktu demografikoa neurtzeko adierazle eta iturri estatistikoak

Dimentsioa	Adierazlea	Iturria	Metodologia
Demografia	Herritarren bilakaera	Udal Errolda. EIN	Erroldatutako herritar-kopurua, nazionalitatearen arabera
	Jaiotza-tasa gordina	Udal Errolda. Jaiotzen Estatistikak. EIN	Jaiotza-kopurua, mila biztanle bakoitzeko, amaren eta aitaren nazionalitatearen arabera
	Mendekotasun Orokorren Tasa	Udal Errolda. EIN	0 eta 14 urte bitarteko pertsona-kopuruaren ehunekoa eta 65 urtetik gorakoak, Euskadin erroldatutako 15 eta 64 urte bitarteko pertsona-kopuruaren aldean eta nazionalitatearen arabera
	Saldo begetatiboa	Udal Errolda. Jaiotzen eta Heriotzen Estatistikak EIN	Jaiotzen eta heriotzen arteko aldea, herritarren nazionalitatearen arabera
	Zahartze-indizea	Udal Errolda. EIN	65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoa, 15 urtetik beherako pertsonen aldean, nazionalitatearen arabera.



4. EMAITZAK

Atal honetan oso zehatzak izango gara eta ikerketa honen emaitza nagusiak baino ez ditugu azpimarratuko, jarraian eranstean den taulan jasotzen direnak; taula hau aztertutako eremu bakoitzean egindako datu eta eragiketa guztien laburpena da.

3. taula. EAEn atzerriko herritarrei egotzitako gastuaren eta diru-sarrereren estimazioa eta haien arteko alde ekonomikoa (2008-2012)

		2008			2012		
		Atzerritarrak	Guztira	%	Atzerritarrak	Guztira	%
INBERTSIOA	Prestazioak + Gizarte-zerbitzuak	118.328.670	1.681.034.107	7,0	236.840.810	2.124.040.029	11,2
	Hezkuntza	130.895.531	2.074.735.454	6,3	172.649.668	2.244.520.484	7,7
	Osasuna	100.416.729	3.176.160.426	3,2	144.711.859	3.399.651.186	4,3
	Etxebizitza	22.353.538	520.414.521	4,3	39.186.586	290.313.485	13,5
	GUZTIRA	371.994.468	7.452.344.508	5,0	593.388.923	8.058.525.184	7,4
DIRU-SARRERAK	PFEZ	112.830.198	4.199.653.000	2,7	201.517.141	4.453.753.000	4,5
	BEZa	54.249.323	1.238.550.233	4,4	84.026.516	1.707.561.636	4,9
	Zerga bereziak	55.982.854	1.393.919.000	4,0	59.742.832	1.497.171.000	4,0
	Etxebizitza	11.085.719	349.200.565	3,2	9.054.908	113.077.782	8,0
	Kotizazioak	208.949.037	6.331.789.000	3,3	277.245.295	6.447.565.000	4,3
	GUZTIRA	443.097.131	13.513.111.798	3,3	631.586.692	14.219.128.418	4,4
Aldea	71.102.663			38.197.770			

Lehenengo eta behin, azpimarratu behar da immigrazioaren inpaktu ekonomikoaren amaierako saldoa positiboa dela bai 2008an, bai 2012an. Alegia, bi urteotarako diru-sarrerak kolektibo honetan egiten den gastutik gorakoak dira. 2008rako saldoa 71 milioi eurotik gorakoa eta 2012an 38 milioikoa izan zen. Bi kasu horietan, saldoa positiboa da, baina azpimarratu behar da, halaber, krisiaren inpaktua antzematen dela; izan ere, saldo horrek behera egin du, 33 milioi euro inguru.

2008rako atzerritarren **gastua** ia 372 milioi eurokoa izan zen, alegia, gastu osoaren % 5, EAEn zeukan gastu demografikoaren oso antzera -% 5,4-. Partiden arabera, atzerriko nazionalitatea duten herritarrentzako gasturik handiena hezkuntzako da, ia 131 milioi eurokoa. Termino erlatiboetan, ordea, prestazioei eta gizarte-zerbitzuei zegokiena zen; izan ere, gastu hori guztizkoaren % 7 zen, hezkuntzako % 6,3ren aldean. Hezkuntzari dagokion gastua partida guztietako baxuena da, eremu horretako gastuaren guztizkoaren % 3,2koa.

2012an, gastuak gora egin zuen eta 593 milioikoa izan zen; urte horretako gastu osoaren % 7,4 –atzerritarren ehunekoa % 6,9koa da–. Urte horretako partidarik esanguratsuena prestazio ekonomikoari eta gizarte-zerbitzuei buruzkoa da; 236 milioi



dira, ia atzerritarren gastu osoaren % 40koa eta eremu horretako gastuaren barruan % 11,2koa. Termino erlatiboetan, etxebizitzaren gastua da une horretan esanguratsuena, eremu horretako guztizkoaren % 13,5ekin. Hala ere, azpimarratu behar da zenbatekoa, oro har, gainerako partidetakoa baino nabarmenki txikiagoa dela eta ehuneko hori, zati handi batean, etxebizitzaren merkatu publikoan emandako aldaketen ondorioa dela –erosketako etxebizitzaren gastuaren beherakada nabarmena eta alokairuko gastuaren gorakada moderatua–.

Datu horiek, beraz, atzerriko nazionalitatea duen kolektiboan gastuaren gorakada handia egon dela adierazten digute, krisi ekonomikoaren ondorioz, eta gizarte-zerbitzuetako eta prestazio ekonomikoen edo etxebizitzaren gastuaren gorakadan islatzen dela. Hala ere, ezin dugu alde batera utzi aldi horretan gertatu den atzerritarren gorakada; 2008an 117.337 pertsona izatetik, 2012an 151.894 izatera igaro da. Gorakada horrek, neurri handiagoan, hezkuntzan edo osasunean gertatzen diren gorakadak azaltzen ditu.

Diru-sarrerak direla eta, 443 milioi eurokoak izan ziren 2008. urterako, alegia, zerga-arloko diru-sarrera guztien % 3,3 eta EAEko kotizazio sozialen bidez. Partiden arabera, diru-sarrera nagusia kotizazio sozialena izan zen; ia 209 milioi eurokoa. Balio erlatiboetan, diru-sarreraren iturri nagusia BEZa izan zen; atzerriko nazionalitatea duten herritarrentzako guztizkoaren % 4,4.

2012ko datuak aztertzen baditugu ikusiko dugu zenbatekoa 631 milioikoa dela eta, beraz, atzerakada ekonomikoko aldia bada ere, EAEn atzerriko nazionalitatea duten herritarrek egindako diru-sarreraren ekarpenak 188 milioi egin duela gora. Kasu horretan, kotizazio sozialek jarraitzen dute diru-sarrerarik garrantzitsuena izaten –277 milioi–, baina PFEZko diru-sarrerak nabarmenki egin zuten gora eta 201 milioikoak izan ziren. Urrunago daude beste atal batzuk, besteak beste, BEZa, zerga bereziak edo etxebizitza publikoaren bidezko diru-sarrerak.

Nahiz eta hasiera batean diru-sarreraren gorakada harrigarria izan, bilakaera koherentea da eta zenbait faktoretan oinarrituta uler daiteke. Lehenengo eta behin, 2008tik 2012ra bitarteko aldi atzerriko nazionalitatea duten herritarren gorakada hori. Era berean, azpimarratu behar da aldi horretan gorakada handia egon dela erregulartasunean atzerriko herritarrentzat eta,, logikoa denez, horrek lan-kontratua izateko aukera dakar eta, horrenbestez, kotizazio sozialak eta PFEZ ordaintzeko aukera ere bai. Hori horrela,pentsatu daiteke Euskadikoa bezalako eredu sozioekonomikoak, non ezkutuko ekonomiak beste autonomia-erkidego batzuetan baino pisu gutxiago duen, bi partida horien bidezko diru-sarrerak handiagoak izatea ahalbidetzen duela, ikus daitekeenez.

Era berean, aipatu nahi dugu Euskadin babes handiko eta zabaleko diru-sarreraren berme-politikaren aldeko apustuak –eta gastuak– dakarrela egoera ahulenak dituzten pertsonen arteko kontsumoak beste leku batzuetan adina ez jaitea eta kontsumoari eustek



zergetan eragina izatea, besteak beste, BEZean edo zerga berezietan, atzeraldi ekonomikoaren aldian gora egiten dutenetan.

Azkenik, etorkinen inpaktu demografikoari dagokionez, emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu, labur. Lehenengo eta behin, azpimarratu behar da azken urteotan atzerriko nazionalitatea duten herritarrak heldu ezean, EAeko herritarren kopuruak ia 50.000 biztanle egingo zukeela behera. Era berean, inpaktua nabarmena da jaiotza-tasan edo mendekotasun-tasan. Azken horrek, esaterako, 12,3tik 9,7ra egin du behera. Datu horiek, imajina dezakegunez, atzerriko herritarren eta bertoko herritarren adinaren egiturako desberdintasunetan oinarrituta azaltzen dira. Horietako lehenengoa, atzerrikoa, askoz ere gazteagoa eta biztanle aktiboen eta ugalketa adinean daudenen kopurua bertokoa baino askoz ere handiagoa da.




5. ONDORIOAK

EAEEn immigrazioak duen inpaktu ekonomikoaren eta demografikoaren gaineko ikerketa honetako emaitza nagusiak kontuan hartuta, zenbait kontu interesgarri azpimarra daitezke.


- EAEEn atzerriko nazionalitateko kolektiboaren ekarpen ekonomikoaren saldoa positiboa da, bai garai oparoetan -2008-, bai krisialdian-2012-.
- Diru-sarrerak 443 milioi izatetik 631 izatera igaro dira, batez ere Gizarte Segurantzarekiko kotizazioen eta PFEZren gorakada dela eta; horrek erakusten du kolektiboak Euskadiko lan-merkatuan okupazio-maila altua duela.
- Nolanahi ere, krisiaren inpaktua nabarmena da eta saldoa 71tik 2008an 38 milioi eurotara egin du behera 2012an, 23 milioi gutxiago.
- Krisi ekonomikoak atzerriko nazionalitatea duen kolektiboarengan duen inpaktua argi islatzen da prestazio ekonomikoen eta gizarte-zerbitzuen kontzeptuan jasotzen duten zenbatekoaren gorakadan. Horrek esan nahi du EAEEn krisiaren inpaktua gehien jasan duen kolektiboetako bat dela eta egoera ahulenean dagoenetako bat dela, azterketa eta estatistika ofizial guztiek berresten dutenez.
- Beste alde batetik, datuek adierazten dute gure gizartean zabaldutako hipotesia, atzerriko nazionalitatea duen kolektiboak jasotzen duena baino ekarpen txikiagoa egiten duela gizarte-babesaren sistemaren bidez, ez dela oinarrizten eskuragarri dauden datu estatistikoetan eta, logikoki, ekarpen handiagoa egingo dutela, ziklo-aldaketa gertatzen denean.
- Horren harira, espainiarren aldean, ez da antzeman biztanleko gastu nabarmen handiagoa atzerritarrentzat. Horrela, gastu hori 3.170 eurokoa zen atzerritar bakoitzeko eta 3.653koa biztanleria osoarentzat. 2012an, zifra horiek 3.906 eurokoak ziren atzerritar batentzat eta 3.947 eurokoak biztanleria osoarentzat. Beste modu batera esanda, 2012an, gastua handiagoa da espainiar batentzat atzerritar batentzat baino. Hori argi azaltzen da atzerritarren pisua oso urria den partida jakin batzuetan egiten den gastu nabarmenagatik, besteak beste, osasuna, mendekotasunerako prestazioak edo goi-mailako hezkuntza.
- Ondorio hauekin amaitzeko, nabarmentzekoa da, halaber, atzerritarrek euskal demografiaren gainean izandako inpaktu sozial argia; horrek dakar herritar-kopurua jaitsi ez izana azken urteotan. Era berean, argia da atzerritarrak heldu izanak zenbait adierazletan, besteak beste, jaiotza-tasan, mendekotasun-tasan edo zahartze-tasan ekarri duen hobekuntza. Hori horrela, ezin ditugu alde batera utzi adierazle horien epe ertainerako eta luzerako ongizate-estatua eusteko inplikazio ekonomiko eta sozial guztiak.



EAEn atzerriko herritarrei egotzitako gastuaren eta diru-sarreraren estimazioaren eta diferentziaren bilakaera (2008 eta 2012) (Milioi euro)



EAEn atzerriko nazionalitatea duten herritarrei egotzitako inbertsioak (gastuak) eta diru-sarrerak (2008 eta 2012), EAEn guztizko gastuaren gainean (%)



ATZERRITIK IRITSITAKO ETORKINEN ERAGINA EUSKAL EKONOMIAN ETA DEMOGRAFIAN



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EBHEKU ETA SOZIALTE
POLITIKARIO BOLA
Euzko Jaurlaritzaren
Gobernazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Departamentuak: Euzko Jaurlaritzaren
Zuzendaritza Zuzendaritza



Universidad
del País Vasco Euzko Herriko
Unibertsitatea

SARRERA

- Krisiak gizartean eta ekonomian izan duen eraginak aldaketa nabarmenak eragin ditu Euskadiko migrazio-fenomenoan, hala migrazioaren dinamikari dagokionez nola atzerritarren bizi-baldintzei dagokienez, bertako herritar askoren kasuan gertatu den bezalaxe. Aldi berean, austeritate-politikek eragina izan dute hala herritarren nola erakunde publikoen baliabide ekonomiko eta sozialetan. Horren ondorioz, tentsioak agertu dira gizarte-kohesioaren eredian, eta gero eta sarriago jartzen dira ezbaian ongizate-sistema publikoak.
- Testuinguru sozial eta ekonomiko horrek zuzenean eragiten dio immigrazioa ulertzeko eta onartzeko gizarteak duen moduari. IKUSPEGIren hainbat barometrotan ikus daitekeenez, krisia etortzearekin gogortu egin da euskal gizarteak immigrazioari buruz hitz egiteko darabilen diskurtsoa, batez ere ongizate-sistema publikoak erabiltzeari dagokionez.
- Alde horretatik, immigrazioari buruz hitz egitean, gizarteak batez ere etorkinek ongizate-sistemetatik “jasotzen” dutena nabarmentzen du, eta alde batera uzten du etorkinek “ematen” dutena. Beraz, diskurtso hori ez da objektiboa eta distortsionaturik dago. Ezin uka daiteke etorkinek egin duten ekarpen ekonomikoa, soziala, demografikoa nahiz kulturala; alabaina, ekarpen hori argitara ateratzea ez da erraza.
- Testuinguru horretan, garrantzitsua da migrazio-fenomenoak Euskadiko ekonomian eta demografian izan duen benetako eraginari argazkia ateratzea eta krisiaren benetako ondorioak zein izan diren arretaz aztertzea. Azterketa honen helburua da ikuspegi kritiko eta orokor batetik abiatuz immigrazioak Euskadiko ekonomian eta demografian izan duen benetako eragina aztertzea, datu eta zifra ofizialak oinarri hartuta.

HELBURUAK

HELBURUAK

1. Txosten honen **helburu orokorra** krisiaren aurretik eta ondoren atzerritik iritsitako etorkinek euskal ekonomian eta demografian izan duten eragina aztertzea da, kontu publikoen ikuspegitik.
2. Helburu orokor hori **bi helburu espezifikoren** bitartez zehazten da:
 - a. **Balantze bat egitea ongizate-sistemen erabileraren eta biztanle atzerritarrek** ekonomiaren ikuspegitik Euskadiko administrazio publikoari eta Gizarte Segurantzari **egiten dieten ekarpenaren artean.**
 - Hala bertako biztanleek nola atzerritarrek ongizate-sistema nola erabiltzen duten aztertzea eta erabilera horrek Ogasun Publikoari nolako kostua eragiten dion ebaluatzea,
 - Biztanle atzerritarrek tributu zuzen zein zeharkakoen eta gizarte-kotizazioen bitartez Ogasun Publikoari egiten dioten ekarpena aztertzea eta xehetasunez azaltzea.
 - b. Biztanle atzerritarrek EAEko **demografian duten eragina** aztertzea.

METODOLOGIA

METODOLOGIA

Arloa	Adierazlea	Iturria	Metodologia
Inbertsio soziala	Laguntzak eta gizarte zerbitzuak	Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). Eusko Jaurlaritza	Inkestaren emaitzen azterketa, biztanleen herritartasuna kontuan hartuta.
	Gastu soziala hezkuntzan	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuak.	Ikasle bakoitzak eragiten duen gastua herritartasunaren, hezkuntza mailaren, matrikulazioaren eta ikastegiaren titulartasunaren arabera.
	Gastu soziala osasun-zerbitzuetan	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuak.	Osasun-zerbitzuen gastuen azterketa, herritartasunaren eta adinaren arabera. Azterketa hori egiteko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egin duen adin-tarteen arabeko osasun-zerbitzuen gastuen adierazlea hartu da oinarri.
	Gastu soziala etxebizitzan	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuak.	Etxebizitzaren arloko gastuen azterketa, Alokabide eta VISESAko esleipendunen herritartasunaren arabera, babes ofizialeko etxebizitza baten jabe direnen kasuan.

METODOLOGIA

Arloa	Adierazlea	Iturria	Metodologia
Diru-sarrerak	PFEZ	Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa	Zerga-bilketaren azterketa, herritartasunaren eta tramokako errenta mailaren arabera.
	BEZa	Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). Eusko Jaurlaritza	Zerga-bilketaren azterketa, herritartasunaren eta kontsumo-egituraren arabera.
	Zerga bereziak	Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). Familia Aurrekontuen eta Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren Inkesta.	Zerga-bilketaren azterketa, herritartasunaren eta kontsumo-egituraren arabera, errentaren mailaren arabera faktore zuzentzaileak kontuan hartuta.
	Etxebizitza	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak	Etxebizitzari dagokien zerga-bilketaren azterketa, Alokabide eta VISESAko esleipendunen herritartasunaren arabera, babes ofizialeko etxebizitza baten jabe direnen kasuan
	Gizarte Segurantzako kotizazioak	Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). EUSTAT	Bildutako zergen azterketa, kotizatzaileen herritartasunaren arabera.

METODOLOGIA

Arloa	Adierazlea	Iturria	Metodologia
Demografia	Biztanleriaren bilakaera	Udal-errola INE	Erroldako biztanle kopurua, herritartasunaren arabera
	Jaiotza-tasa gordina	Udal-errola Jaiotzen estatistikak. INE	Mila biztanleko jaiotza kopurua, amaren eta aitaren herritartasunaren arabera.
	Mendekotasun tasa orokorra	Udal-errola INE	Euskadin erroldatutako 0 eta 14 urte bitarteko eta 65 urte baino gehiagoko pertsonen ehunekoa, 15-64 urte arteko biztanle kopuruari dagokionez, herritartasunaren arabera.
	Saldo begetatiboa	Udal-errola Jaiotzen eta heriotzen estatistikak. INE	Jaiotzen eta heriotzen arteko aldea, biztanleen herritartasunaren arabera.
	Zahartze-indizea	Udal-errola INE	65 urte edo gehiagoko pertsonen ehunekoa, 15 urtetik beherako biztanleei dagokienez, herritartasunaren arabera.

EMAITZAK

Eragin ekonomikoa kontu publikoetan

Inbertsio sozialeko gastuak eta Ogasun Publikoak jasotako diru-sarrerak, biztanleria osoari eta atzerritarrei dagokienez. 2008-2012

		2008			2012		
		Atzerritarrek	Guztira	%	Atzerritarrek	Guztira	%
INBERTSIOA	Prestazioak + Gizarte Zerbitzuak	118.328.670	1.681.034.107	7,0	236.840.810	2.124.040.029	11,2
	Hezkuntza	130.895.531	2.074.735.454	6,3	172.649.668	2.244.520.484	7,7
	Osasuna	100.416.729	3.176.160.426	3,2	144.711.859	3.399.651.186	4,3
	Etxebizitza	22.353.538	520.414.521	4,3	39.186.586	290.313.485	13,5
	GUZTIRA	371.994.468	7.452.344.508	5,0	593.388.923	8.058.525.184	7,4
DIRU-SARRERAK	PFEZ	112.830.198	4.199.653.000	2,7	201.517.141	4.453.753.000	4,5
	BEZ	54.249.323	1.238.550.233	4,4	84.026.516	1.707.561.636	4,9
	Zerga Bereziak	55.982.854	1.393.919.000	4,0	59.742.832	1.497.171.000	4,0
	Etxebizitza	11.085.719	349.200.565	3,2	9.054.908	113.077.782	8,0
	Kotizazioak	208.949.037	6.331.789.000	3,3	277.245.295	6.447.565.000	4,3
	GUZTIRA	443.097.131	13.513.111.798	3,3	631.586.692	14.219.128.418	4,4
Aldea		71.102.663		38.197.770			

- Hala 2008an nola 2012an, atzerritarrek Ogasun Publikoari egiten dioten ekarpena kolektibo horrek ongizate-sistemari eragiten dion gastua baino handiagoa da.
- 2008an, bi horien arteko aldea 71 milioi eurotik gorakoa izan zen; 2012an, berriz, aldea 38 milioi eurotik gorakoa izan zen. Ikusten dugunez, krisiaren eraginez murriztu egin da bi horien arteko aldea (32 milioi euro gutxiago); hala ere, **positiboa izaten jarraitzen du.**

- Nahiz eta krisiak eragin gogorra izan duen ongizate-sistemen erabileran, atzerritik etorritako biztanleek baliabide ekonomiko gehiago sortzen dituzte administrazio publikoan, biztanle horiek beraiek ongizate-sistemak erabiltzean eragiten duten gastuen aldean.
- Oro har, 2008an biztanle atzerritarrek eragindako gastua 371.994.468 euro izan ziren; hau da, aurreikusitako gastu osoaren % 5. 2012an, gastu hori 221 milioi euro inguru hazi zen, eta, beraz, 593.388.923 eurora iritsi zen; hau da, aurreikusitako gastu osoaren % 7,4.
- Diru-sarrerei dagokienez, atzerritarrek Ogasun Publikoari egin zioten ekarpena 443.097.131 eurokoa izan zen; hau da, aurreikusitako diru-sarrera guztien % 3,3. Krisia gorabehera, diru-sarrerak 190 milioi euro hazi dira, eta 631.586.692 milioi eurora iritsi dira; hau da, aurreikusitako diru-sarrera osoen % 4,4.
- Atzerritarrek biztanleria osoan zuten pisua % 5,4koa zen 2008an eta % 6,9koa 2012an. Hori kontuan hartuz, ikus daiteke krisiaren aurretik kolektibo horri egotz ziezaiokeen gastu soziala demografian zuen pisua baino txikiagoa zela (% 5eko gastua eta % 5,4ko pisua) eta diru-sarrerak baxuagoak zirela. 2012an, ordea, talde horren gastu soziala biztanlerian zuen pisuaren gainetik zegoen (% 7,4ko gastua eta % 6,9ko pisua).

- Diru-sarrerari dagokienez, hala 2008an nola 2012an, atzerritik etorritako biztanleek sortutako diru-sarrerak kolektibo horrek biztanleria osoan zuen pisua baino txikiagoak ziren. Hala ere, desberdintasun hori gorabehera, emaitzak positiboa izaten jarraitzen du, sortutako diru-sarrerak eragindako gastuaren gainetik baitaude.
- Emaitzak biztanleriaren arabera aztertuta, 2008an biztanle atzerritarrei egotzitako per capita gastua 3.170 eurokoa zen pertsonako; per capita gastu osoa, berriz, 3.653koa zen. 2012an, biztanle atzerritarren per capita gastua 3.906 eurokoa zen pertsonako; biztanleria osoaren per capita gastua, ordea, 3.947 eurokoa zen EAEko biztanle bakoitzeko.
- Krisiaren ondorioetako bat izan da biztanle atzerritarren gastua biztanleria osoaren gastuaren maila berera iritsi dela, batez ere gizarte- eta etxebizitza-laguntzen arloan egondako gorakadaren eraginez.
- Ogasun Publikoari egindako ekarpen gehienen jatorria lanean ari diren eta Gizarte Segurantzari izena emana duten atzerritarren Gizarte Segurantzako kotizazioak izan dira. Atzetik dituzte PFEZaren bidezko diru-sarrerak, eta, maila askoz apalagoan, kontsumotik eratorritako diru-sarrerak BEZaren bitartez, Zerga Bereziak eta etxebizitza (BOEak erostea eta alokairu publikoak ordaintzea).


- Bilakaerari dagokionez, atzerritarrei egotz dakiekeen gastu sozialaren gorakada batez ere diru-laguntzen eta gizarte-zerbitzuen ondorioa da; izan ere, laguntza horiek 118 milioi euro egin dute gora 2008 eta 2012 artean. Bestalde, hezkuntzaren, osasun-zerbitzuen eta etxebizitzaren arloko gastuak motelago egin du gora (41 milioi, 44 milioi eta 16 milioi, hurrenez hurren).
- Atzerritarren bitartez eskuratutako diru-sarrerren gorakada honako hauen ondorioa da: PFEZaren bidez zerga gehiago biltzea (+ 88 milioi) eta Gizarte Segurantzaren kotizazioak (+ 68 milioi). BEZaren gorakada, berriz, ez da hain nabarmena (+ 29 milioi) eta zerga berezien gorakada oso motela da (+3 milioi). Bukatzeko, etxebizitzaren bidezko diru-sarrek zertxobait egin dute behera (- 2 milioi).

Eragin demografikoa

	Bilakaera datuen laburpena 2001-2013			
	Atzerritar immigrazioarekin	Atzerritar immigrazio gabe	Eragina	Ondorioa
Biztanleriaren bilakaera	+90.204	-49.256	+139.460	Biztanleria galtzetik demografiaren gorakadara
Jaiotza-tasa gordina	+1	+0,3	+0,7	Jaiotza tasari bultzada eta igoera handiagoa
Mendekotasun tasa orokorra	+9,7	+12,3	-2,6	Mendekotasun tasa orokorraren beherakada
Saldo begetatiboa	+9.621	-18.917	+28.538	Saldo begetatibo negatibotik positibora
Zahartze-indizea*	138,1	148,4	-10,3	Zahartzen indizean hamar puntuko beherakada
Migrazio-saldoa	+ 103.602	-45.009	+14.8611	Emigrazioak eragindako populazio galtzea geldiarazi eta populazioaren hazkundera immigrazioak bultzatua



* 2013. urtea

- Euskadiko 2001-2013 urteetako demografia-adierazleen azterketa zehaztua eginez gero, honako hau ondorioztatu daiteke: demografiaren ikuspuntutik, **immigrazioaren eragina positiboa izan da dimentsio guztietan.**





- Biztanleria galtzetik demografiaren gorakadara.** 80ko hamarkadatik, Euskadiko biztanleriak beheranzko joera izan du, baina atzerritik iritsitako etorkinei esker, joera hori gelditu ahal izan da. Immigrazioak bertako biztanleriaren galera konpentsatu du (galera hori oraindik ere geratzen ari da), eta biztanleriak gora egitea ahalbidetu du (Euskadin ez da gorakadarik egon 80ko hamarkadatik).

Jaiotza-tasa 2001-2013





- Jaiotzen gorakada.** Immigrazioari esker, jaiotza-tasa gordina 0,7 hazi da, eta, 2009an, 1,3 hazi zen. 2001-2012 bitartean, Euskadiko jaiotza guztien % 15 (30.000 jaiotza) immigrazioari esker gertatzen dira.



Mendekotasun tasa orokorra 2001-2013



- Mendekotasun-tasaren beherakada.** Atzerritik iritsitako biztanleek demografiari egin dioten ekarpenak demografiaren egitura gaztetu du. Gaztetze horren ondorioetako bat mendekotasun-tasak izan duen aldaketa da. Gaur egungo tasa 9,7koa da, eta etorkinik gabe, tasa hori 12,3koa izango litzatekeela aurreikusten da. Hala, immigrazioari esker, mendekotasun-tasa 2,6 puntu jaitsi da.



- Zahartzea.** Euskal demografiaren egitura progresiboki ari zen zahartzen; joera hori moteldu egin da immigrazioaren eraginez. 2001-2013 artean, zahartze-tasa puntu bat baino ez da igo. Alabaina, gurean atzerritarrik egongo ez balitz, zahartze-tasa hamar puntu igoko litzateke epe berean.



- Hazkunde naturala.** Jaiotzen eta heriotzen arteko aldea aztertuz gero, ikus daiteke Euskadiko hazkunde naturala biztanle atzerritarrek egindako ekarpen demografikoaren ondorioa dela. 2001-2013 artean, gurean biztanle atzerritarrik egongo ez balitz, bilakaera naturala negatiboa izango litzateke (- 18.917 pertsona); alabaina, kolektibo horrek Euskadin jaiotzei eman dien bultzadari esker, saldoa positiboa izan da (9.621 pertsona).

ONDORIOAK

- Atzerritarrek EAEn egiten duten ekarpen ekonomikoaren saldoa positiboa da, hala oparotasun-garaietan (2008) nola krisialdian (2012).
- Diru-sarrerak 443 milioi izatetik 631 milioi izatera igaro dira, batez ere Gizarte Segurantzako kotizazioei eta PFEZari esker; horrek adierazten du kolektibo horrek euskal lan-merkatuan duen okupazioa altua dela.
- Dena dela, krisiaren eragina nabarmena da, eta 2008an saldoa 71 milioi eurokoa bazen ere, 2012an 38 milioikoa izan zen.
- Krisi ekonomikoak argi eta garbi eragin dio atzerritarren kolektiboari. Hala adierazten du talde horrek jasotzen dituen diru-laguntzen eta gizarte-zerbitzuen gorakadak; gorakada horrek adierazten digu, halaber, kolektibo hori dela EAEn krisiaren eragina gehien nabaritu duten kolektiboetako bat eta haren egoera oso ahula dela. Ikerketa eta estatistika ofizialak ere bat datoz horrekin.
- Bestalde, gizartean oso zabaldua dago atzerritarren kolektiboak ematen duen baino gehiago jasotzen duela gizarte-babesaren arloko sistemaren bitartez, baina datuek adierazten dute uste horrek ez daukala oinarririk datu estatistikoetan.

- Horri dagokionez, ez da hauteman atzerritarrek pertsonako eragiten duten gastua bertako biztanleek eragiten duten gastua baino altuagoa denik. Hala, pertsona atzerritar bakoitzeko gastua 3.170 eurokoa zen; biztanleria osoari dagokionez, ordea, gastua 3.653koa zen. 2012an, zenbateko hori 3.906 eurokoa zen atzerritar batentzat eta 3.947 eurokoa biztanleria osoarentzat. Beste era batera esanda, 2012an bertako pertsona bakoitzeko gastua atzerritar bakoitzeko gastua baino altuagoa zen. Hori horrela izan daiteke diru asko erabiltzen delako atzerritarrek pisu gutxi duten zenbait partidetan, esaterako, osasun-zerbitzuetan, mendekotasun-kasuetarako diru-laguntzetan edo Goi Mailako Hezkuntzan.
- Ondorio hauei amaiera emateko, aipatu beharra dago biztanle atzerritarrek eragin handia izan dutela euskal demografia; izan ere, etorkinei esker, EAEko biztanleria ez da gutxitu azken urte hauetan. Halaber, begi-bistakoa da atzerritarren presentziak hobekuntza ekarri duela hainbat adierazletan, besteak beste jaiotzetan, mendekotasun-tasan edo zahartze-tasan. Ildo horretan, ezin ahaztu ditzakegu horrek dakartzan inplikazio ekonomiko guztiak adierazle horien Ongizate Estatuari eusteari dagokionez.



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
*Familia Politikarako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Política Familiar
y Desarrollo Comunitario*